



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko azaroaren 7a

132. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

- 11-25/PRO-00015. Foru Legea, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00154. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita oinarritzko gizarte-zerbitzuek berma dezaten beren langile guztiek kobratuko dituztela oinarritzko soldata eta kasuko osagarriak, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen oinarritzko programak eta finantzaketa sistema arautzen dituen uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuaren 33. artikuluan jasotakoak. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-25/MOC-00155. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita FITUR 2026 nahiz gainontzeko azoketan parte hartetik kanpo utz dezan Israel. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztu du (6. or.).
- 11-25/MOC-00131. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Itoizko zentral hidroelektrikoa abio beltzeko azpiegitura estrategiko bihurtzeko aukera aztertu eta sustatu dezan CANA-SA SA eta Red Eléctrica Española (REE) sozietateekin batera. Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Batzordeak onetsi du (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00387. Galdera, 2026-2027 ikasturterako eskola-mapa aldatzeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (9. or.).
- 11-25/PES-00388. Galdera, Virgen del Camino ikastetxe integratu politeknikoan kurtsoa errepikatu behar duten ikasleen egoerari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (9. or.).
- 11-25/PES-00389. Galdera, palko instituzionalak erabiltzeko irizpideari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (10. or.).

- 11-25/PES-00390. Galdera, eskola itunduko ratioa egokitzeari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00391. Galdera, Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren zirriborroaren ibilbide instituzionalari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00392. Galdera, 2020ko urtarrilean despopulatze-arriskuan zeuden herriei buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00393. Galdera, BAI programako graduondoa egiteko jasotako eskabideei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00394. Galdera, izapidetzea bertan behera uzteak ukitutako biometanizazio-proiektuei buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (13. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-25/GPER-00026. Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen artean Liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista izateko prestakuntza eta hobekuntza jasotzeko hautapen probak egiteko deialdia. Onartutako izangaien zerrenda (15. or.).
- 11-25/ACOP-00026. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, zeinaren bidez bere egin baitu Fronte Polisarioak 2025eko urriaren 27an Bir Lehloun (Saharako Errepublika) egindako Adierazpen Politikoa (15. or.).
- 11-25/DPA-00002. Diziplinazko prozeduraren ebazpena (16. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00015. Foru Legea, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko urriaren 30ean egindako bilkuran, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzen duena

ATARIKOA

Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatagietan energia berriztagarrien integrazioa egitea, bai eta ekonomia zirkularreko ekimen haiek, modua ematen dutenak ustiatagietan sortzen diren hondakinak energian edo ongarri organikoetan eraldatzeko, klima-larrialdiari eta lehen sektoreak Europa osoan bizi duen kinka bereziki larriari erantzuteko estrategia bihurtzen dira.

Testuinguru horretan, munta berezikotzat jo behar da biometanoa, energia berriztagarriaren iturria izaki, eta eratorria nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatagietan sortzen diren askotariko hondakin organikoei hurbileko lurralde batean berrerabiliak izateko egiten zaien tratamendu-prozesutik.

Energia-iturri horrek piztu duen interesa hain bestekoa da ezen, gaur egun, Nafarroan tamaina desberdinetako biometanizazio-plantak ezartzeko proiektu ugari baitago Nafarroaren luze-zabaleko kokaleku desberdinetan, garapen-maia oso desberdinetan daudenak.

Ekimen horiek bateragarriak izan behar dira lurralde-oreka jasangarriko printzipioekin, energia berriztagarritzko eta ekonomia zirkularreko azpiegitura-instalazioekin konprometitutako udalen interes orokorrarekin eta haietako herritarren ongizate eta bizi-kalitatearekin. Izan ere, ekimen horiek jasangarritasuna horren hiru ildoetan bermatu behar dute: ingurumenarena, ekonomiarena eta soziala.

Administrazioak zaindu behar du planta horietako bakoitzak kontrol-sistema zorrotzak ezartzen dituela jasotzen dituen hondakinen jatorriaren nahiz trazabilitatearen gainean, biltegi estalietako kudeaketarako plana betetzen dela, lortzen den ongarria edo energia ingurune hurbil batean erabiltzen dela, nekazaritza-ustiatagiekiko edo hiriguneekiko gutxieneko distantziak errespetatzen direla, trafiko astunaren mugikortasuna kontrolatzen dela eta olfatometriazko neurketa periodikoak egiten direla, exijitzen ahal diren beste betekizun batzuen artean.

Nafarroako Gobernuak jada ekin dio halako foru dekretua izapidetzeari, zeinak arautzen baititu simaur eta digestatoen kudeatzea eta horri loturiko kreditatze- eta kontrol-prozesuak. Onesten denean, giltzarri-izaerako lanabes bat izanen da tankera horretako instalazioen lurralde-ezarpena orekaz egiten dela bermatzeko, eta horrez gain errazteko ezen planta horien tamaina doitu egiten zaiela lurraldeen beharri-zanei eta harrera-ahalmen errealarari.

Horregatik, moratoria bat proposatzen da, modua emanen duena ahalik denbora laburrenean plangintza-tresna publiko bat eskueran izatea, zinez eraginkorra, aurreikusten baita foru-lege proposamena indargabetuta geratuko dela aipatu foru dekretua behin betikoz onestearekin.

Artikulu bakarra. Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzea.

Xedapen gehigarri bat eransten da. Hona testua:

“Zortzigarren xedapen gehigarria. Biometanizazio-proiektuen aldi baterako berrikuspena.

1. Foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere hamabi hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak aztertuko du zertan den Foru Komunitatean biometanoa sortzeko dauden proiektuen garapena, bai eta 2030erako Biogasaren Nafarroako Agendaren betetze-maila ere.

2. Epe horretan, administrazio publiko eskudunek ez dute biometano-instalazioen proiektu berri onartuko.

3. Halaber, jada hasita eta izapidetze-fasean dauden administrazio-espedienteak kautelaz eten egingo dira, salbu eta honako bi baldintza hauek betetzen badituzte:

- Jendaurreko informazio- edo erakusketa-fasea amaitu bada.

- Sektore-txosten lotesle guztiak aldekoak badi-ra eta espediente organo substantiboaren ebazpen-proposamenaren fasean badago.

4. Etete horretatik espresuki kanpo geratzen dira, halaber, foru lege honek indarra hartu aurretik gutxienez baldintza hauetako bat bete duten proiektuak:

- Ingurumen-baimen integratuaren ebazpena lortu dutenak, ingurumen-ebaluazioa eta hirigintza-bateragarritasuna barne.

- Nafarroako Gobernuak espresuki foru-erkidegoaren intereseko proiektu deklaritzen dituenak.

5. Edonola ere, xedapen honetako kautelazko etetea 2026ko irailaren 30a baino lehen amaituko da, edota eremu kalteberetan ongarrizeari buruzko foru-araudia indarrean sartzen den unean.

6. Foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak departamentu arteko batzorde tekniko bat eratuko du, Landa Garapenean, Lurralde Kohesioan, Industrian, Trantsizio Ekologikoan eta Osasunean eskumena duten departamentuetako ordezkariak osatua, txosten bateratu bat egiteko xedez. Txosten horretan honako hauek jasoko dira:

- Izapidetzen eta gauzatzen ari diren proiektuei buruzko diagnostiko tekniko eguneratua.

- Proiektu horien lurralde-, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-inpaktuaren azterketa.

- Beharrezko gomendioak plangintza orekatua, jasangarria eta teknikoki zorrotza bermatzeko, erakundeen eta herritarren parte-hartzearekin”.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00154. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita oinarrizko gizarte-zerbitzuek berma dezaten beren langile guztiek kobratuko dituztela oinarrizko soldata eta kasuko osagarriak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen oinarrizko programak eta finantzaketa sistema arautzen dituen uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuaren 33. artikuluan jasotakoak

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita oinarrizko gizarte-zerbitzuek berma dezaten beren langile guztiek kobratuko dituztela oinarrizko soldata eta kasuko osagarriak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen oinarrizko programak eta finantzaketa sistema arautzen dituen uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuaren 33. artikuluan jasotakoak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialleko eta Enpleguako Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

Nafarroako oinarrizko gizarte-zerbitzuek funtsezko lana egiten dute gure erkidegoko herritar guztiei aukera- eta helburu-berdintasuna bermatzeko. Bertako langileak funtsezkoak dira zaintza-sistema egituratzen duten zerbitzu horiek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuen sistema publikoko oinarrizko unitatea izanda, sisteman sartzeko atea eta herritarrengandik gertuen dagoen maila dira. Honako eginkizun nagusiak hauek dituzte: premia-egoerak detektatzea, aztertzea eta diagnostikatzea; eskaerak aurkezten dituzten pertsonen arreta eta lehen erantzuna ematea; prestazioak eskuratzeko erraztasunak ematea eta programak gauzatzea; diagnosi soziala edo gizarte eta hezkuntzakoa baloratzea eta egitea; gizarte-laguntza eta -akonpainamendu etengabea eskaintzea; prebentzioko, sustapeneko eta gizarte-sentsibilizazioko jarduerak egitea; gizarte-larrialdiko eta gizarte-zerbitzuen zorroko prestazioak kudeatzea; eta boluntariora eta elkarrekiko laguntza sustatzea.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuen titulartasuna toki-erakundeei dagokie, baina Nafarroako Gobernuak ere finantzatzen ditu. Beraz, foru-administrazioaren eta toki-administrazioen betebeharra da erabil-tzaileek jasotzen duten laguntzaren kalitatea zaintzea, bai eta zerbitzu horietan sortzen den enpleguaren kalitatea zaintzea ere.

Oinarrizko gizarte-zerbitzu horietan sortzen diren enpleguak, batez ere maila txikiagoko lanbi-de-profiletan (Familia Langilea-D Maila eta Fami-

lia Langilea-E Maila) oso feminizatuta daude, oso zaharkituta eta partzialtasun-indize handia dute.

48/2020 Foru Dekretuak, uztailaren 15ekoak, zeinaren bidez arautzen baitira oinarritzko gizarte-zerbitzuen oinarritzko programak eta finantzaketa-sistema, 13. artikuluan jasotzen du zein izan behar den oinarritzko talde profesionalaren osaera oinarritzko gizarte-zerbitzuaren titular den toki entitate bakoitzerako (haren kopurua eta profil profesionalak zehazteko, eskualde oinarritzko populazio estratua hartuko da aintzat, 1. eranskinean xedatutakoarekin bat), eta zein izan behar den soldata kostuen zenbatespena (honako hauen arabera: oinarritzko soldata, lanpostuko eta mailako osagarriak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileentzat, eta Gizarte Segurantzaren kostuaren zati proportzionala).

Azken hilabeteetan, Comisiones Obreras (CCOO) sindikatuak jendaurrean salatu du Nafarroako hainbat oinarritzko gizarte-zerbitzutan plantilla guztiei ez zaiela bermatzen uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuaren 13. artikuluan jasotako soldata-ordainsarien ordainketa (oinarritzko soldata eta osagarriak).

CCOOk salatutako gertakari horrek konparaziozko bidegabekeria nabarmena azpimarratzen du oinarritzko gizarte-zerbitzuetako langileen artean. Langile horiek antzeko eginkizunak betetzen dituzte, eta egiten duten lana, neurri batean, Nafarroako Gobernutik datorren diru publikoarekin finantzatzen da.

Administrazio Publikoek, guzti-guztiek, salbuespenik gabe, prekarizatuak dauden langileen lan-baldintzak duintzen eta langileen artean dauden diskriminazio edo konparaziozko bidegabekeriekin amaitzen saiatu behar dute. Are gehiago, kasu honetan, profil profesional bera duen lanpostu bera betetzen duten langileez ari garenean.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen du prozedura egokien bidez berma dezan oinarritzko gizarte-zerbitzuek langile guztiei berma diezaietela gutxienez oinarritzko soldata eta dagozkien osagarriak kobratuko dituztela, uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuaren 13. artikuluan (I. eranskina) jasotakoarekin bat.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako udalak eta mankomunitateak premiatzen ditu berma dezaten beren oinarritzko gizarte-zerbitzuek langile guztiei berma diezaietela gutxienez oinarritzko soldata eta dagozkien osagarriak kobratuko dituztela, uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuaren 13. artikuluan (I. eranskina) jasotakoarekin bat.

Iruñean, 2025eko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/MOC-00155. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita FITUR 2026 nahiz gainontzeko azoketan parte hartzetik kanpo utz dezan Israel

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita FITUR 2026 nahiz gainontzeko azoketan parte hartzetik kanpo utz dezan Israel.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregela-menduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabai-datu eta bozkatzeko. Mozio honen jarraipena Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak egiten du.

Zioen azalpena

2023ko urrian, Gazako zerrenda Israelgo estatu genozidak gauzatutako aurrekaririk gabeko eraso militar baten agertokia izan zen, eta hala izaten jarraitzen du. Horrek izugarritzko krisi humanitarioa eragin du.

Nazioarteko hainbat erakundek, hala nola Nazio Batuek, Human Rights Watch-ek eta Amnistia Internazionalak, behin eta berriz dokumentatu dituzte eraso horren ondorio suntsitzaileak: ehunka mila pertsona erail dituzte –gehienak zibilak, tartean, haurren kopuru izugarri handia–, milioi bat barne-desplazatu baino gehiago, eta funtsezko azpiegiturak sistematikoki suntsitu dituzte, hala nola ospitaleak, eskolak, etxebizitzak, errepideak eta abar. Horri guztiari gehitu behar zaio oinarritzko ondasunak (elikagaiak, edateko ura, sendagaiak eta erregaia) eskuratzeko eragozten duen blokeo ankerra.

Nazioarteko komunitateak, gobernu, parlamentu eta gizarte-erakunde ugari barne, kezka eta gaitzespen sakona adierazi du genozidio horren eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eta giza eskubideen urraketa larri eta etengabeen aurrean.

Horri guztiari herrialde gehienetako gizartearen salaketa gehitzen zaio; izan ere, etengabeko presioaren bidez, kontuak ematea eta indarkeria-egoeraren aurrean Israelgo Gobernuaren kontrako presio politiko, ekonomiko eta instituzionaleko neurri eraginkorrak hartzea eskatzen ari da, baita nazioarteko zuzenbidea errespetatzea ere.

Nafarroako Parlamentuak hasieratik erakutsi du indarkeria bertan amaiarazteko konpromisoa, eta jarrera irmoa hartu du gatazkaren aurrean. Giza eskubideekin konprometitutako komunitate baten ordezkari garen aldetik, ezin dugu axolagabe egon.

Bestalde, FITUR, Madrilen urtero egiten den Nazioarteko Turismo Azoka, erakusleiho globala da, non estatuek beren irudia mundura proiektatzen baitute, eta hainbat jarduera ekonomiko erakartzeko balio du.

FITUR 2025ean Israelen ordezkartza bat egon zela kontuan hartuta, eta Gazako zerrendaren egoera larria dela eta, ezin dugu onartu Israel datorren urtean bertan egotea, horrek biztanleak bortizki kanporatu ondoren okupatutako eremuetan turismoa zuritzea ekarriko bailuke.

Horiek horrela, Israelgo Estatu genozidak espazio horretan parte har dezan baimentzea, Gazako biztanleria zibilaren aurkako bonbardaketek jarraitzen duten bitartean eta etengabeko urraketen ondoriozko erantzukizunak argitzen ez diren bitartean, eraso- eta okupazio-politika sistematikoa normalizatze eta zuritze modu bat da, eta guk, jakina, ez dugu onartuko.

Horregatik, Nafarroako Gobernuak eta Foru Komunitateko toki-entitateek bake, justizia eta nazioarteko elkartasun balioekiko jarrera etiko eta koherentea izaten jarraitzea planteatzen da, genozidioari ezetz eta nahikoa dela dioten gure herritar gehienen izenean.

Guretzat konpromisoa argia da: FITUR 2026n parterik EZ hartzea, baldin eta Israelen ordezkartza instituzionala badago, Gazako egoera larriaren eta Palestinako herriaren eskubideen defentsaren aurkako gaitzespen-seinale gisa.

Neurri hori ez da Israelgo herriaren aurkakoa, ezta bertako herritarren aurkakoa ere, baizik eta Israelgo gobernuaren politiken aurkakoa eta nazioarteko zuzenbidearen oinarritzko arauak urratzen dituzten krimenen zigorgabetasunaren aurkakoa.

Historiak epaituko gaitu isilik jarraitzen badugu eta genozidioa zuritze aukera ematen badugu. Guretzat ez dago neutraltasunik zapaltzaileari bakarrik mesede egiten dion bidegabekeria horren aurrean.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du Israel FITUR 2026 Nazioarteko Turismo Azokan parte hartzetik bazter dezan, bai eta bere irudia zuritze erakusleiho bat eskain diezaioketen gainerako azoka, kongresu eta jardunaldietatik ere, Palestinako herriaren kontrako genozidio-egoerari eusten dion bitartean.

Iruñean, 2025eko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

**11-25/MOC-00131. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita Itoizko zentral hidroelektrikoa abio beltzeko azpiegitura
estrategiko bihurtzeko aukera aztertu eta sustatu dezan CANASA SA
eta Red Eléctrica Española (REE) sozietateekin batera**

*INDUSTRIAKO ETA ENPRESEN TRANTSIZIO EKOLOGIKO ETA DIGITALERAKO BATZORDEAK
ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artiku-
luan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Par-
lamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Indus-
triako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta
Digitalerako Batzordeak 2025eko azaroaren 5ean
onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako
Gobernua premiatzen baita Itoizko zentral hidro-
elektrikoa abio beltzeko azpiegitura estrategiko bihur-
tzeko aukera aztertu eta sustatu dezan CANASA
SA eta Red Eléctrica Española (REE) sozietateekin
batera. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du Itoizko zentral hidroelektrikoa
abio beltzeko azpiegitura estrategiko bihurtzeko
aukera aztertu eta sustatu dezan CANASA SA eta
Red Eléctrica Española (REE) sozietateekin bate-
ra”.

Iruñean, 2025eko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00387. Galdera, 2026-2027 ikasturterako eskola-mapa aldatzeari buruzkoa**ENKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, 2026-2027 ikasturterako eskola-mapa aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio galdera honi idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen 80/2019 Foru Dekretuko 2. artikulua arabera, Hezkuntzako kontseilariaren eskumena da hezkuntza-unitate berriak sortzeko eskaerei bidea ematea, eta horretarako beharrezkoak diren administrazio-espeditateak izapidetzea. Eta irailaren 20an amaitu zen Nafarroako Eskola Mapa aldatzeko eta euskarazko eredu berriak sor daitezen eskatzeko protokoloa.

Zein izan dira 2026-2027 ikasturtean eskola mapa aldatzeko egon diren eskaerak?

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00388. Galdera, Virgen del Camino ikastetxe integratu politeknikoan kurtsoa errepikatu behar duten ikasleen egoerari buruzkoa**ENKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Virgen del Camino ikastetxe integratu politeknikoan kurtsoa errepikatu behar duten ikasleen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaia andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio galdera hauei idatziz erantzun diezaien.

2024-2025 ikasturtean Lanbide Heziketako lege berria indarrean jarri zen. Horrek ekarri zuen ikastetxeetan aldi berean bi plan batera egotea: Lanbide Heziketa Duala (berria) eta Lantokiko Prestakuntza (zaharra). 2025-2026an ere bi planak uztartzen ari dira. Horrek esan nahi du 1. eta 2. mailan plan berriko ikasleak daudela, eta, aldi berean, plan zaharreko 2. mailako ikasle errepikatzaileak ere bai.

Virgen del Camino Ikastetxe Integratuko Zentroko irakasle eta gurasoek, ordea, adierazi dute Hezkuntza Departamentuak ez zuela egoera hori aurreikusi eta irakasleek ez dutela nahiko ordurik errepikatzen ari diren ikasleak artatzeko.

Zer ari da egiten Hezkuntza Departamentua egoera horri aurre egiteko? Zenbat ikasle errepikatzaile dago egoera horretan Virgen del Camino ikastetxean 2025-2026 ikasturtean? Zenbat orduko dotazioa du ikastetxeak ikasle horien beharrak kudeatzeko? Kurtso Hasierako Jarraibideetan jasotako al daude horretarako beharrezkoak diren neurriak eta baliabideak?

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaia

11-25/PES-00389. Galdera, palko instituzionalak erabiltzeko irizpideari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, palko instituzionalak erabiltzeko irizpideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Bermatu al da Nafarroa Arenako eta Baluarte auditorioko palko instituzionalak agintariak, ordezkari publikoak eta alde zurretik finkatutako entitateek baino ez dituztela erabili, edo salbuespenak egon dira horien erabileran?

Iruñean, 2025eko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/PES-00390. Galdera, eskola itunduko ratioa egokitzeari buruzkoa*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, eskola itunduko ratioa egokitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunari, idatziz erantzun diezaion:

2024ko urtarrilaren 22an, Hezkuntza Departamentuaren webgunean honako hau argitaratu zen: "Hezkuntzak ratioak murrizten jarraitzea proposatzen du, ikasleen banaketa ekitatiboko irizpideekin, baina ohartarazten du murrizketa linealak 131 milioi euroko kostua izango lukeela". Argitalpenean, kontseilariak ikasleen banaketa ekitatiboko irizpideekin ratioak murrizten jarraitzeko konpromisoa berretsi zuen. Hori kontuan hartuta, galdera hau egiten dugu:

Nola aurreikusten du Hezkuntza Departamentuak itunpeko eskoletako ratioa egokitzea?

Iruñean, 2025eko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-25/PES-00391. Galdera, Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren zirriborroaren ibilbide instituzionalari buruzkoa*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren zirriborroaren ibilbide instituzionalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Joan den irailaren 28an amaitu zen Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren zirriborroari ekarpenak egiteko fasea. Horretarako prestatutako gunean egin diren zazpi proposamenak daude:

- Egiari Zor Fundazioa
- Nafarroako Torturatuen Sarea
- Nafarroako Kontseilu Ebanjelikoa

- Berridatzi Elkartea
- Covite
- Anvite
- Terrorismoaren Biktimen Elkartea

Beste proposamen bat badago, baina erretiratu egin da:

- Salhaketa Nafarroa

Alderdi politikook ekarpenak egiteko aukera izan genuen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuko zuzendariaren bidez, urriaren 10era arte. Halaxe egin genuen Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariotik, eta jakinarazi ziguten hurrengo astean bilera baterako deialdia jasoko genuela (informazio hori Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzutik helarazi ziguten).

Bilera horren deialdirako iragarritako epea luze gainditu denez,

Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoa onartzeko prozesuaren faseek aurreikusten dute-

nez, Planaren "Azken Idazketa" fasea 2025/09/29tik 2025/11/16ra bitartean egingen denez,

Parte-hartze prozesura bideratutako gunean ekarpen horietako bakar baten berri ere eman ez denez, talde parlamentarioei ere eman ez zaienez (Unión del Pueblo Navarroi ez behintzat), eta gure ekarpenen berririk jaso ez dugunez, ez eta deialdirik jaso ere,

"Onespena: Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoa Nafarroako Gobernuari helaraztea, onar dezan" deritzon fasea 2025eko azaroaren 17tik 2025eko azaroaren 30era bitartean egingen denez,

Zer aurreikuspen du Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak iragarritako bileraren inguruan eta zer ibilbide instituzional egingen dute Nafarroako Bizikidetzaren II. Plan Estrategikoaren zirriborroak eta hari egindako ekarpenek, Nafarroako Gobernuak onartu aurretik?

Nafarroan, 2025eko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-25/PES-00392. Galdera, 2020ko urtarrilean despokatze-arriskuan zeuden herriei buruzkoa

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, 2020ko urtarrilean despokatze-arriskuan zeuden herriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2020ko urtarrilean, zein herri zeuden despokatze-arriskuan?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

11-25/PES-00393. Galdera, BAI programako graduondoa egiteko jasotako eskabideei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, BAI programako graduondoa egiteko jasotako eskabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zenbat onarpen-eskabide jaso dira BAI programako graduondoan?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00394. Galdera, izapidetzea bertan behera uzteak ukitutako biometanizazio-proiektuei buruzkoa

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, izapidetzea bertan behera uzteak ukitutako biometanizazio-proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2025eko urriaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena onetsi zen.

Aldaketa horretan, biometanizazio-instalazioen tramitazioak eteten dituen moratoria bat ezartzen da, salbu eta bi baldintza hauek betetzen badira:

– Jendaurreko informazio- edo erakusketa-fasea amaitu bada.

– Sektore-txosten lotesle guztiak aldekoak badi-ra eta espedientea organo substantiboaren ebaz-pen-proposamenaren fasean badago.

Etete horretatik kanpo geratzen dira, halaber, foru lege honek indarra hartu aurretik gutxienez baldintza hauetako bat bete duten proiektuak:

– Nafarroako Gobernuak berariaz foru-erkide-goaren intereseko proiektu deklaritzen dituenak.

– Ingurumen-baimen integratuaren ebazpena lortu dutenak, ingurumen-ebaluazioa eta hirigintza-bateragarritasuna barne.

Zeintzuk dira tramitazio-eteteak eragiten ez dien biometanizazio-instalazioen proiektuak, onartutako moratoriak ezartzen dituen salbuespenak kontuan hartuta?

Onartutako luzamendua kontuan hartuta, biometanizazio-instalazioen zer proiektuk jasanen dute tramitazio-etetearen eragina?

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

G saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/GPER-00026. Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen artean Liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista izateko prestakuntza eta hobekuntza jasotzeko hautapen probak egiteko deialdia

Onartutako izangaien zerrenda

64/2025 Ebazpena, urriaren 31koa, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiarena, zeinaren bidez onesten baita aipatu prozeduran onartuak izan diren izangaien zerrenda.

Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren 2025eko urriaren 8ko Zirkularren bidez (2025ko urriaren 14ko 118. NPAO) Liburutegiko laguntzaile eta dokumentalista izateko prestakuntza eta hobekuntza gauzatzeko hautaprobak deitu ziren Nafarroako Parlamentuko langile funtzionarioentzat.

Eskabideak aurkezteko ezarritako epea hama-bost egun naturalekoa zen zirkularra Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Epea amaiturik, bidezkoa da deialdian onartutakoen zerrenda argitaratzea. Hori dela eta, EBATZI DUT:

1. Deialdian onartutako izangaien zerrenda onestea. Honatx:

- Mercedes Seviné Ruiz andrea.

2. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuaren webgunean argitara dadila agintzen da.

Iruñean, 2025eko urriaren 31n

Legelari nagusia: Silvia Doménech Alegre

11-25/ACOP-00026. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, zeinaren bidez bere egin baitu Fronte Polisarioak 2025eko urriaren 27an Bir Lehloun (Saharako Errepublika) egindako Adierazpen Politikoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bere egin du Fronte Polisarioak 2025eko urriaren 27an Bir Lehloun (Saharako Errepublika) egindako Adierazpen Politikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Saharako herriarekiko konpromisoa agertzen du, eta herri horri babesa ematen dio askatasunerako eta autodeterminaziorako bidean, Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoaren esparruan.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/DPA-00002. Diziplinazko prozeduraren ebazpena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 3an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2025eko irailaren 22an, Parlamentuko Mahaiak 11-25/DPA-00002 diziplinazko espedientea ebaztea erabaki zuen, Emilio Jiménez Román foru parlamentariak 2025eko martxoaren 5eko Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izandako gertakariengatik izan zezakeen erantzukizuna argitzeko.

Eledunen Batzarraren azaroaren 3ko Erabakiaren bidez, ezetsi egin zen ezarritako zehapenaren aurka aurkeztutako errekurtoa.

Erregelamenduaren 133.2. artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Zehapen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea:

“Emilio Jiménez Román foru parlamentariari idatzizko ohartarazpen-zehapena ezartzea, Parlamentuko jardunean ez dezan berriz ere arau-hauste hau egin: Parlamentuari edo haren kideei, erakundeei edo beste edozein pertsona edo entitateri zor zaien duintasunerako iraingarriak diren hitzak edota kontzeptuak esatea”.

2. Zehapena Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduaren 133.2. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Iruñean, 2025eko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias